



ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, AZAROAREN 25A, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEAREN ALDEKO EGUNA DELA- ETA

Arabako Batzar Nagusiek berretsi egiten dute berdintasuneko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako politikien alde.

luz, 2019an, azaroaren 24an egindako tradiziozko osoko bilkuran, Batzar Nagusi hauek aho batez onetsi zuten 15 puntu zuen mozio bat. Mozioak, bere lehenengo puntuari, honakoa adierazten zuen: "Arabako Batzar Nagusiek adierazten dute emakumeenganako indarkeriaren sustraiak honako hauek direla: gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanen desberdintasun historikoa; eta emakumeenganako diskriminazio orokorra, bai sektore publikoan, bai sektore pribatuan".

Urtebete geroago, agerian geratu da, bizi dugun pandemiaren ondorioz, emakumeek egoera are zaurgarriagoan daudela indarkeria matxistaren aurrean.

Hortaz, gisa honetako egoerak salatzen jarraitu beharra daukagu, urratzen dituztelako berdintasun-printzipio oinarrikoenak eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean jasotako oinarriko eskubideak. Halaber, sustatzen jarraitu behar dugu politikak eta baliabideak abian jartzea, alde batetik indarkeria-egoera hauek prebenitzeko, biktimei babesa emateko baliabideak eta programak garatzeko, eta bestetik emakumeen ahalduntzea eta autonomia laguntzeko.

Halandaze, Arabako herritar guztien ordezkari den instituzio gisa, Batzar Nagusiek arabarrei dei egiten die bat egin dezaten Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako eguna dela-eta mugimendu feministak antolatzen dituen mobilizazioekin, eta bere egiten dute EUDELe, Euskadiko Udalen Elkarteak, aho batez onetsitako adierazpena. Honako konpromiso hauek hartzen dituzte:

DECLARACION INSTITUCIONAL DE LAS JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA CON MOTIVO DEL 25 DE NOVIEMBRE, DIA POR LA ELIMINACIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

Las Juntas Generales de Álava, vuelven a reiterar su compromiso inequívoco en favor de las políticas de igualdad y contra la violencia contra las mujeres.

El pasado año 2019, en el Pleno Tradicional celebrado el día 24 de noviembre, estas Juntas Generales aprobaron, por unanimidad una moción en este sentido que contenía 15 puntos y en el primero de los cuales manifestaban "que las raíces de la violencia contra las mujeres están en la desigualdad histórica de las relaciones de poder entre hombres y mujeres y la discriminación generalizada contra las mujeres en los sectores tanto público como privado".

Un año después nos encontramos ante una situación de pandemia cuyas consecuencias han puesto más de manifiesto situaciones de, si cabe, aún mayor vulnerabilidad de las mujeres frente a la violencia machista.

Debemos continuar en consecuencia profundizando en la denuncia de este tipo de situaciones que vulneran los más elementales principios de igual y los derechos fundamentales contenidos en la Declaración Universal de Derechos Humanos y a la vez es una necesidad seguir promoviendo la puesta en marcha políticas y recursos que por una parte puedan prevenir estas situaciones de violencia, desarrollar programas y recursos de apoyo a las víctimas y apoyar a las mujeres en su empoderamiento y autonomía.

Por lo tanto, como institución representativa de toda la ciudadanía alavesa, las Juntas Generales hacen un llamamiento a alavesas y alaveses adherirse a las movilizaciones convocadas por el movimiento feminista con motivo del día por la Eliminación de la Violencia hacia las mujeres y hacen suya la Declaración aprobada unánimemente por EUDEL, Asociación de Municipios Vascos comprometiéndose a:

- ✓ Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen eskubideak arreta-prozesuaren erdigunean jarri, beren beharrak eta eskaerak entzunez eta haiei erantzuna emanaz. Helburua da babeserako, arretarako, erreparaziorako eta ez errepikatzeko bermerako duten eskubidea ziurtatuko duten politikak diseinatzea.
- ✓ Zaintza hobetzea, indarkeria-egoerak bizi dituzten emakumeen era eta profil berriak detektatu ahal izateko eta haien aurrean jardun ahal izateko
- ✓ Indarkeria matxista bere era guztietan pairatzen duten emakumeentzako arreta- eta babes-zerbitzuak mantentzea, hobetzea eta egokitzea ikuskera sendatzaile batekin, instituzio bakoitza bere eskumenen esparruan.
- ✓ Bultzatzea emakumeen ahalduntzea eta indarkeriaren prebentzioa laguntzeko programak populazio gaztearen artean, etorkizunean indarkeria-egoerak ekiditeko funtsezko tresna gisa.
- ✓ Tokiko berdintasun-programak babestea eta sendotzea, desberdintasunen areagotzearen aurka borrokatzeko, emakumeen zenbait kolektiboren zaugarritasuna larriagotzen baitu.
- ✓ Aztertzea zein eragin ari den izaten COVID19ren krisiak emakumeen pobretzean eta zaugarritasunean, babes-jarduketa espezifikoa taxutu ahal izate aldera.
- ✓ Genero-ikuskera txertatzea enpleguaren eta diru-sarreraren galera eta krisiaren bestelako eragin negatiboak arintzeko neurrietan, krisiak eragin handiagoa izan duelako
- ✓ Situar los derechos de las mujeres víctimas de violencia machista en el centro de todo el proceso de atención, escuchando y atendiendo sus necesidades y demandas, para diseñar nuevas políticas que garanticen el derecho a la protección, atención, reparación y garantía de no repetición.
- ✓ Mejorar la vigilancia para poder detectar y actuar con rapidez ante nuevas formas y nuevos perfiles de mujeres en situaciones de violencia.
- ✓ Sostener, mejorar y adaptar los servicios de atención y apoyo para las mujeres que enfrentan violencia machista en todas sus formas con un enfoque reparador, en el ámbito de las competencias de cada institución.
- ✓ Impulsar los programas de apoyo al empoderamiento de las mujeres y la prevención de la violencia entre la población más joven como instrumentos esenciales para impedir futuras situaciones de violencia.
- ✓ Preservar y consolidar los programas de igualdad en la vida local, para luchar contra el aumento de las desigualdades que agudizar las situaciones de vulnerabilidad de algunos colectivos de mujeres.
- ✓ Analizar el impacto que la crisis del COVID19 está teniendo en el empobrecimiento y la vulnerabilidad de las mujeres para poder diseñar actuaciones específicas de apoyo.
- ✓ Incorporar la perspectiva de género en las medidas dirigidas a paliar las pérdidas de empleo, ingresos y otros impactos negativos de la crisis, que han afectado más a las



emakumeengan eta hori oztopo bat delako indarkeria matxistako egoeretatik atera ahal izateko.

- ✓ Instituzioen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren aldeko ekimenak (udalak, foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritza), nor bere eskumenen esparruan, baliabideak bermatu eta behar diren ekimen guztiak abian jartzeko xedez.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroak 24

mujeres y suponen un obstáculo para que puedan salir de situaciones de violencia machista.

- ✓ Apelar a la colaboración y coordinación entre instituciones, Ayuntamientos, Diputaciones Forales y Gobierno Vasco a fin de garantizar los recursos y poner en marcha todas las iniciativas necesarias, en el marco de sus competencias.

Vitoria-Gasteiz, 24 de Noviembre de 2020



● ● ● ● ● ○ ● ●
Arabako Batzar Nagusiak
Juntas Generales de Álava